

Donostiarron ikusmiran

Kontadoreseko egitasmoa salatu dute

bidebietako hainbat bizi-lagunek osatutako Etxebizitzaren Aldeko Batzordeak Kontadoreseko egitekoa den hirigintza proiektua salatu du berriro ere. Besteak beste, Udalaren jokaera demokrazioaren kontrako dela dio eta proiektuaren atzean espekulatzeko asmoa dagoela.



Argazkia: Inaral Otegi

Etxebizitzaren Aldeko Batzordearen esanetan, Kontadoreseko lantegi zaharrean salmenta libreko 156 etxebizitza egin nahi dira, "40 milioi pezetatan edo garestiago saltzeko". Lursail berean babes

diz, 525 milioitan saldu zaiola. Beraz, Etxebizitzaren Aldeko Batzordeak diru publikoaren 4.000 milioi pezeta


inguru galdu direla dio. ofizialeko 186 etxebizitza egin litezkeela gogorarazi du aipatutako batzordeak. Bidebietako bizilagunek, bestalde, lursaila enpresa eraikitzaileari merkeegi saldu zaiola ere salatu dute. Erakunde publikoek Kontadoreseko lursaila duela 15 urte 4.100 milioi pezetatan enbargatu zutela diote eta enpresa eraikitzaileari, al-

Elkartasuna Hego Amerikarekin

posta zerbitzuak Hego Amerikako haurrei hainbat materiale bidaltzeko kanpaina abian jarri du. Besteak beste, axotak, arkatzak edota koadernoak bildu nahi dituzte. Materiale hauek posta zerbitzuaren bulegoetan utzi daitezke urriaren 15a baino lehen. Ekimena aurrera eramateko, Unicef-ek izango du bildutakoa Hego Amerikara bidaltzearen ardura.

Txara-2, irailaren 18an

intxaurrendoko Txara-2 kultur etxe berriaren lanak amaitzeaz dira eta beraz, irailaren 18an zabalduko da, zenbait udal ordezkari adierazi dutenez. Txara-2k liburutegia, fonoteka, bideoteka eta internet eta liburu eta CD-Rom mailegu zerbitzuak izango ditu, besteak beste. Horrez gain, hitzaldi eta ikastaroak egingo dira bertan. Ramon Etxezarreta Kultura zinegotziaren esanetan, kultur etxe berria Larrotxenekoaren osagarria izango da.



DATUA

56.000

MAILEGU

Udal liburutegi nagusiak, udaletxeko sotoan dagoenak alegia, 56.000 mailegu egin ditu aurtengo lehen zazpi hilabeteetan. Batez beste, egunero udal liburutegi guztien artean 833 liburu ematen dira maileguan eta horietatik 572 liburutegi nagusian ematen dira. Ramon Etxezarreta Kultura zinegotziaren esanetan, datu honek agerian uzten du azpiegitura berriaren arrakasta.

Loiolako koartelak hizketagai

Loiolako Urumea Ibaia eta Txomin Eneko Lan Berri auzo elkarteek militarren koartelen etorkizuna argitzeko eskatu diote Odon Elorza alkateari. Gogoratu behar da duela zenbait hilabete alkateak Espainiako Defentsa Ministeritzarekin negoziazioetan hastea erabaki zuela, lursail hauek berreskuratzeko. Aipatutako elkarteek Donostian ordezkari izan duten alderdi politiko guztiei gai honetan duten jarrera azal dezaten eskatu nahi diete.



Argazkia: Inaral Otegi